

URTE BERRIAREN ATARIAN

Behin amets egin nuen denbora ito egin zela itsasoan eta, harekin batera, gizakiok nahasmenduaren zuloan amildu gine-la. Animaliek betikoan zirauten, denboraren hondamenaz ohar-tu gabe. Izan ere, haiek ez dute gure denborarik, beren bizi gi-ro, erritmo eta senak markatzen dietena baizik. Etxeko abereek jasan behar izan zuten soilik gizakiaren nahasmendua, hau burua atera ezinik, zer egin eta nora jo ez zekiela baitzebilen.

Beste euskarri eta erreferentzia batzuen bila hasi beharko, egoera berrian ordena pixka bat ezartzeko. Baina nola? Zeri ezarri eskua? Zeri lehenengo eta zeri gero, lehenik eta gerorik ez bazen? Laino itsuak hartu zuen dena eta ez adimena ez lo-gika ez ziren gai bakoitza bere tokian kokatzeko, denbora eta espazioa *multzo* berekoak baitziren. Oraintxe, ustekabean, agertu da egoera hau definitzen eta biltzen duen hitza: *mul-tzoa*. Multzo itxuragabea. Ez dago denboran eta espazioan ezer kokatzerik. Ez dago denborarik ezta espaziorik ere, biak batera galdu baitziren.

Orain arte zenbat aldiz ez ote genuen gaitzetsi denbora, edo denboran eta denboraren bidez ezartzen ziguten ordena hotz eta zorrotza, inoren ez ezeren gupidarik ez zuena, ez baitzigun bizitzen ere uzten, urduritasuna eta egonezina sortuz! Baina ez, barru-barruan ez zen denbora, haren kudeaketan gizarteak be-re buruari edo gizarteko boteretsuenek ahulagoei eta mende-koei ezartzen zieten uztarria baizik. Izadiaren gurpilean ibili na-

hi genuen, haren orduetan; ez genuen artifiziala izan nahi, naturala baizik. Gizakiak bere interesengatik asmatu ordena ia gorrotatzera iritsi ginen; esparru itogarri horretatik irten eta izadiaren eskutik geure erara antolatu nahi genituen hemengo ibilera eta jarduera guztiak. Baina ez dakigu izadia errespetatzen, haren eskutik, hura gida nagusi dugula, ibiltzen. Gizakiak denean sartu du eskua eta izadiaren legeak, bideak, ia ezerezera ekarri ditu. Denean bere marka ezarri behar. Ez beti marka ona, noski, haren interesak jakinekoak baitira.

Ametseta honetan gizakiaren eraketan funtsezkoa dena ito da; itsasoak irentsi omen du. Ertzak beti dira txarrak; erdian dago ona, erdian orekaren giltza. Eta ertz hau, ia gorrotatzera iritsi ginena baino okerragoa, ez ote? Desordena hutsa, nahasmen-dua, ezereza, kaosa. Hau probaturik, lehengo ordena zorrotza, gainean ezarritako uztarria, erlojuaren mendeko bizitza, itolarrizkoa, presazkoa... ez ote genuen hobea? Ametseta honen zorabio larrian, oihanitsu honetan, argira, bidera, ezagunera, arrazoizkora irten nahi, eta halako batean noizbait gorrotatu izan genuen erlojuaren txirrinak jo zuen eta errealitatearen aurrean jarri ninduen. Denbora bere ordutegi, programa, helburu, asmoak kolkoan dituela hemen dugu berriro. Ongi etorri! esan diogu, su artifizialen kolore-jokoetan eta suziri hotsean. Hor dugu betiko joko-zelaia; hor borrokatu beharko dugu.

Urte berriaren atarian gaude; *urte berri asmo berri* dio esaerak. Elkar agurtzerakoan, batzuetan, *zer berri?* galdetu ohi diogu lagunari eta hark, zer kontatu handirik ez badu, *zabarrak berri* erantzuten du. Halaxe da orain ere: urte berria hasten dugu, baina bizia ez da orain hasten; lehendik dator eta aurrera doa etengabe, erreka bat bere ibilbidean bezala. Gauza onak nahiz txarrak lehendik datoz eta geroan luzatzen dira. *Zabarrak berri*. Dena ongi kudeatzeko, gidatzeko eta neurtzeko epeak ezartzen dira gure egintza eta asmoetan. Politikan, administrazioan, kulturean, ekonomian... hala egiten da, eta

ezinbestekoa da epeak ezarri eta kontrolatzea. Urte berria asmo berrietarako muga jakina da.

Batzuetan amets liluragarriak gauzatzea ekarriko duen zerumuga antzera agertzen zaigu. Beste batzuetan, zer ekarriko digun ez dakigun mamu antzera; gauza asko aurrekoen, igarotakoen kopia bezalakoak izango dira, haien errepikatzea; baina beste hainbat, berriak, ezezagunak. Ezezagunaren aurrean beti izaten da barrua ziztutzen digun beldur izpi bat; zer ote du zoriak guretzat gordeta? Nola banatuko ote du bere ekarria? Zoriona ala zoritxarra? Gertakari batzuk horrela edo hala bideratzea ez dugu geure esku; beraz, alferrik da horietaz kezkatzea. Gero egingo omen duen euriaz ez dela busti behar esan zidan behin lagun on batek, ni oraindik gertakizun zen gauza baten aurrean estu eta larri ikustean. Egoki da, hala ere, gure esku dauden gauzak ongi bideratzen, prestatzen saiatzea. Izan ere, gehienetan, gauzak geuk nola prestatu, hala izaten dira emaitzak. Alde horretatik, urte berriak igo behar dugun mendi baten oinetan jartzen gaitu. Lainoz estalia dago mendi barrena. Ia ez da ezer ikusten; aurrera egin ahala, bidezidorrak argituz joango direlako esperantza dugu. Elkar hartuz bideari gogotsu ekitea dagokigu orain.

Baina urte berriaren atarian begira diezaiogun gure mundutxo honen itxurari. Nola agertzen zaigun haren ikuspegia.

Hainbat gauza on ditugu begi bistan; asko, betikoak, lehendik datozenak edo azken urteetan indar hartu dutenak; beste batzuk, orain mamitzen ari direnak. Bai hots ezaguna, betikoa eta gozoa hitz edo kontzeptu hauena: *askatasuna, elkartasuna, giza eskubideak, gizatasuna...*! Hitz biribilak, edukiera handikoak, aho betean eta oso erraz esaten direnak, baina praktikan gure kontraesanen aurpegia nabarmen erakusten dutenak.

Ordenamendu politikora jaitsiz, *demokrazia* da beste hitz edo kontzeptu biribiletako bat. Zer den? Gobernu era bat dela

esango genuke, aginpidea hiritar guztiek hauteskunde bidez hautatutako ordezkarien esku egotean oinarritzen dena; beste era batera esanda, herriak burujabetza askatasunez erabakitzen duenean izaten den gobernu era. Demokrazia hiritarren askatasunean eta berdintasunean datza. Izenez demokratikoak diren estatu asko izatez ez dira halakoak; are gehiago, nazioartean demokratikotzat diren hainbat estaturen jokaera asko eta asko ez dira batere demokratikoak, esaterako, epaileek, auziak ebazterakoan askatasunez ebatzi beharrean, gobernuaren edo alderdi politiko jakin baten esanera ebazten dutenean. Hainbat erresumatan, oraindik nabarmenagoa da giza eskubideen urraketa, demokrazia zer ez den adibide argi bihurtzeraino. Inguru hurbilera begira, badakigu asko dagoela egiteko, bide luzea ibiltzeko, baina espiritu kritikoa eta demokrazia-sena nahiko barneratuak ditugula esan dezakegu.

Azpiegiturako obren eta ekologiaren artean jarriko dugu orain begirada. Sokatira honetan ere askotan gertatzen da soka boteretsuenen aldera joatea, eta hauek beti egin ohi dute beren interesen alde, hau da, kosta ahala kosta, azpiegitura handien alde. Enpresa handien diru-gose aseezina dago tartean. Hauek dira legezko agintearen gainetik indarra dutenak. Gidari politikoak beren aldera erakartzen saiatzen dira, opari handi gustagarrien bidez eta era askotako presio bidez. Ekologia kontuak eta naturaren kalteak, haien iritzian, txikikeriak dira; azpiegiturek dakarten aurrerapenaren ondoan, ez dira kontuan hartzekoak. Argi dago ez dutela izadia begirunez tratatzeko sentiberatasunik.

Jende herritarrak, gure lurra, basoak, mendiak, errekek... maite dituenak, askotan jaso beharko du kontrako ahotsa eta aldarri egin, gure ondare naturalaren defentsarako eta herriaren aurrerapenerako, hain zuzen ere. Ez da erraz gertatuko askoren buruetan hori sartzea, kontrako ideia ongi sartua eta sustraitua baitago, hau da, zementuaren eta asfaltoaren kultura, hori dela aurrerapenaren giltza eta bestea atzera begira-

tzea, arbasoen haitzuloetara begira egotea. Dena dela, argi dago ez dagoela ekologista hain sutsu eta itsurik, azpiegiturako obra guztiak, edozein direla ere, gaitzesten dituenik. Batzuk badakigu beharrezkoak eta egokiak direna; ez, ordea, gure lurralde txiki honek, kalte handirik gabe, ezin onar ditzakeenak. Neurrietan eta proportzioetan dago koska.

Hurrengo ikuspegia oroipen historikoan dago. Honetaz, han eta hemen zatika, asko idatzi da. Nik neuk ere baditut testu zatitxoak; gerratekoak edo diktadura garaikoak dira. Hona Florentzio Markiegiri buruz idatzirik idatzilanean datorrena:

“Zer da oroipen historikoa? Ez da iraganeko ispiluan begiratze hutsa, ezta ikerketa historikoa ere. Justiziaren, etikaren eta pedagogiaren helburua du azpian. Joandako denboraren ikuspegitik lehenagoko ona finkatzea da, okerrak zuzentzea, bidegabekerien biktimak ohoratzea, ahaztearen ilunpetik haiek askatzea, lehengo okerretatik ikastea, *historia magistra vitae* delako esaldiaren haritik hori guztia bilatzea da.

Iragana, aspalditik datorren historia, gure aurretik bizi zirenen urratsak, ahaleginak, oraingo gure bizitzarako eta etorkizuna eraikitzeko ispilu izango direnak, aintzat hartzea dela esango nuke. Kontzeptu nahiko lausoa. Zer sartzen da horren barruan? Nire iritziz, oroimenean gordetzea merezi lukeen oro. Gertakari gogoangarriak (baita gertakari dramatiko eta tristeak ere), data adierazgarriak, pertsonaia aipagarriak etab. ikusi ohi ditugu oroipen historikoa deritzogun zerumuga horren barruan.

Gertakari dramatiko eta tristeetan ere argi egiten diguten seinaleak agertzen zaizkigu, pertsonaia eredugarriak, halako egoera latzei gizatasunez, duintasunez aurre egiten jakin zutenak. Oroipen historikoaz ari garela, 1936ko gerra zibilera eta gerra ostera begiratzen dugunean, sufrimendua, kartzelak, hilketak, bidegabekeria basatiak, indarraren eta armen legea... ikusten ditugu, baina baita ilun horren guztiaren artean ostarte argitsuak ere, alde bateko eta besteko pertsona askoren por-

taera jator eta kementsua. Testuinguru horretan ageri zaigu gaurko gure pertsonaia, horko basakerien eta bidegabekeriaren biktima legez: Florentzio Markiegi Olazabal. Gizon eredu-garria arrazoi askogatik, baina batez ere bere gizatasunagatik, politika aldetik aurkariak zirenak errespetatuz bere ideal politiko, etiko eta erlijiosoei eusten jakiteagatik. Gaur egun, herri honen aurrean aspaldi amestutako zerbait gauzatze bidean sumatzen dugunean, etapa berri baten atarirantz goazela dirudienean, etorkizunari itxaropen-mezua dariolako sentipena dugunean, ezin ditugu ahaztu horrelako pertsonak”¹.

Karmel aldizkarian, baina bi urte geroagokoan (2013-2), idatzi genuen A. Roman (Leon Urtiaga Elezburu) karmeldar zaldibartarrak eta hango pasartetxo bat aldatzen dugu hona:

“Aita Roman frankistek fusilatu zuten, gorrotoz beterik, Larreako Karmeldarren baratzeko horma ondoan. Hil zuten lekuan bertan utzi zuten hilotza, biharamunean erreketek piketeko soldaduek lurperatu zuten arte. Orain dela urte batzuk txaletak eraiki ziren Larreako bigarren baratzea izan zen inguru hartan eta *Aita Roman Urtiaga Kalea* jarri zioten izena. Bada zerbait, frankistek hildako asko eta asko non dauden ere ez baitakigu oraindik...”.

Hona beste gogoeta baten hainbat pasarte, diktadura garaian Euskal Herrian izan genituen eskola arrotzez:

“Diktadurak Euskal Herriko eskoletan berariazko ahalegina egin eban *Espainiaren espiritu nazionala*, guretzat arrotza, gerran garaile izan ziranen gogokoa, gure umeen barruan txertatzen; berezkoa, etxetik, herritik ekarrena hiltzen eta galarazten. Espainiak bere moldea, bere ideologia, bere helburuak, bere *Patria* ekarri zituan hona eta indarrez ezarri, eskolatik hasita. Gure umeen bihotzak izango ziran, barriro be nekazaritza-irudia erabiliz, hazia ereiteko lur samur emonkorra.

¹ *Florentzio Markiegi eta azken gutunak Duesoko kartzelatik* (Karmel 2011-1).

Honetaz asko idatzi da; guztia ez. Sufritu dabenen gomutan geratuko dira hainbat zertzelada, kontzientzi hondoan hainbat sentimendu mingots, idatzira pasatu ez diranak, denboraren joanak, bake eta maitasun nahiak guztiz irazi eta ezabatu ez dituenak. Dana dala, oroipen historikoa gordetzeko eta egin dan bidegabekeria gogoan hartzeko, nahikoa. “Sufritu dabenen gomutan” esan dogu. Asko izango ziran *sufritu* ez ebenak. Hori guztiori pozik hartzen ebenak, *irabazleen* pentsamoldera makurtuak edo hareen bandokoak ziralako. Beste batzuk ez eben sufrituko, inozentzian gauzak halan ziralakoan eta eskola ikastearren hori guztiori jasan behar zalakoan”².

Oraingo gizartera begira, gizon-emakumeen arloan, puntu ilunak eta argiak ageri zaizkigu. Puntu ilunetatik ilunena, indarkeria matxistaren azalratzea dela esan dezakegu. *Azalratzea* diot, lehen ere ezkutuan bazegoela entzuten baita, hau da, emakumea baztertuagoa zenean, disimuluan pasatzen zirela gauza horiek, baina orduan ere, inork salatu eta aireratu ez arren, hori hor zegoela. Gure gizartean belzkeria horiek berez-berez egiten dute aldarri giza kontzientziaren barruan. Txarrean ere, horixe izan daiteke alde ona: kontzientzia piztu dela, gauza horiek kontzientziak astintzen dituztela. Lehengo isilean, ezkutuan edo disimuluan uztearen ondoan, aurrerapeña da hau, gizartean alarma-dei hori ozen entzuten baita.

Giza eskubideei dagokienez, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunerantz urrats sendoak eman dira eta emango dira. Gero eta sentiberatasun handiagoa dago horretan. Asko omen dago lortzeko, baina atzerantz eta aurrerantz begiratuta aztertzen badugu, alde handia dagoela ohar-tuko gara. Asko dago egiteko bai, baina asko da egin dena ere. Haserre egoteko arrazoi ugari dituzte emakumeek, baina garrazkeria baino alde batekoen eta bestekoen elkar hartzea

² *Nire Sasoiko Markina-Xemein* (2009 Markina-Xemeingo Udala).

eta enpatia eraginkorragoak dira, ziur asko, eskubideei dago-kienez, berdintasuna lortzeko.

Urte berriaren atari honetan urteak betetzen dituzten hiru erakunde kultural ageri zaizkigu: Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza eta Argia astekaria. *Urteak bete* esatea gauza gutxi esatea da; 100 urte bete dituzte; mende beteko ibilbide oparoa osatu dute kulturaren eta euskararen zerbitzuan. *Berria* egunkariak gorazarre egiten die, baina bi orrialde eskaintzen dizkio auzoko kideari, *Argiari*. “Askotan aitzindari” jarri dio izenburua. Hona azpтитuluak dioena: “Ehun urteko historian, une latzei aurre egin behar izan die *Argiak*, eta beti berrasmatu du bere burua. Euskal kulturaren izen handien aterpe izan da aldizkaria, eta hainbat belaunaldiren ahotsa ere bai”. Aro berrian Astekariaren zuzendaritzan izan den Elixabete Garmendiaren, zuzendari izan diren Pello Zubiria eta Xabir Letonaren iritziak ageri dira lerro laburretan. Hona hemen:

‘Argia’ ren historiak islatzen du euskal kazetaritzarena eta, oro bar, XX. mendeko euskalgintzarena.

(Elixabete Garmendia)

Guk beti izan genituen gogoan gure aurrekoen ametsak; borregatik ekin genion euskarazko egunkaria sortzeari.

(Pello Zubiria)

‘Argia’ izan dagarai ezberdinetako borroka politiko eta sozialen bozgorailua, eta hala izaten jarraitzen du.

(Xabier Letona)

Guk ere zorionak, *Karmel* aldizkariaren orrietatik Euskaltzaindiari, Eusko Ikaskuntzari eta *Argia* astekariari. Gure *Karmelek* ez ditu oraindik 100 urte bete, baina bidean doa, gerra aurrekoa baita.

Luis Baraiazarra Txertudi